

PROIEKTUAREN DESKRIBAPENA

Gure enpresak zerbitzu bat eskainiko du ikastetxe publikoetako irakasle zein ikasleei. Zerbitzu honekin saiatuko gara ikasle eta irakasleen arteko desadostasunak konpontzen, irakaskuntzan sortzen diren arazoak konpontzeko, klase antolaketarekin eta ordutegiekin dauden arazoak, hain zuzen ere. Horretarako, APP bat sortuko dugu. Aplikazio hau erabili ahal izateko Google Play edo App Store-en deskargatzeko aukera egongo da. Gainera, aplikazioa deskargatzea eta izatea doan izango da. Honetan bi eremu bereiziko dira: alde batetik, ikasleen eremua; eta bestetik, irakasleena. Beraz, aplikazioa deskargatu ondoren, izena emateko orduan, irakasle edo ikasle bezala izena eman beharko da.

Baina aplikazio honetaz aparte, ikastetxe publikoetan hitzaldiak ere emango ditugu. Hauetan, helburua da, aplikazioarekin lortutako informazioa ikasle zein irakasleei azaldu, eta gorabeherarik balego, momentuan haien artekoa konpontzea. Horrela, errazagoa izango da irakaslearentzat klaseak antolatzea eta baita ikaslearentzat gelan emandako teoria ikastea ere; beraz, emaitza hobek aterako lirateke. Izan ere, ikasle eta irakaslearen arteko liskarrak konponduta egongo lirateke.